

MUGIMENDU FEMINISTAREN ERRAIEI BEGIRA:

Eraldaketarako boterea eraiki dezagun!

Bilgune Feministaren ponentzia

ZER LORTU NAHI DUGU? (Proiektua)

Proiektu erradikala josi behar dugu, feminismo liberalaren falaziaren aurrean. Erakundeek, enpresek edota kultura *mainstream*-ak feminismoa “jator” bihurtu nahi dute, eta kutxa horretan sartzen ez dena lekuz kanpokotzat utzi. Garbi uzten du Mercheren azken abestiak: “*Yo soy feminista total, porque siempre he defendido la igualdad. No me gustan los radicalismos. Libertad es ser uno mismo. Todas somos hermanas, españolas o mexicanas. Y yo haré lo que me de la gana*”. Hori da sistemaren errelatoa: berdintasuna eta aniztasunaren festa, baina mugimendu politiko erradikalik gabe, borroka kolektiborik gabe eta eroso den bitartean. Itxura hau hartuko du, beraz, datozen urteetako paktu patriarkal berriak.

Lortu dugu feminismoa ez izatea debeku bat, baina indibidualismoaren mandatuei eta berrantolatzen ari den ofentsiba matxistari aurre egin behar diogu orain: gizonen erresistentziak indartu dira (aktibo edo pasiboak), feminismo “arrazional-liberalaren” kontra ofentsiba diskurtsiboa zabaltzen ari da, *inditexek* negozio bilakatu gaitu... Ez dugu nahi argazki hutsa den feminismoa, gure bizimodua errotik aldatuko duen planteamendu baten bila gaude. Herritarron %99aren mesedetan ari gara. Horregatik, generoak ez ditu gure menderakuntzaren ertz guztiak barnebiltzen, estatus migratorioa, klasea, arraza, nazioa edota sexualitatearen araberrako zapalkuntzak hartu behar ditugu oinarri moduan, hala errealitatea aztertzeko, nola alternatibak proposatzeko.

Bestetik, ezkerreko sektore batzuetatik datorren errezeta esentzialistak, monolitikoak, subjektu bakarrekoak eta, askotan, anti-feministak ez digu balio: XIX. mendean bezalaxe, langile klasea (modu klasikoan ulertutakoa) da subjektu iraultzaile bakarra, eta gainerako mugimenduok hori zatitzera eta sistemari joko egitera etorri omen gara. Baina marko horretan ez gara kabitzen bazterretakook, emakumeak, bollerak, transak... Klasearen ikuskera horretan, bizitza mantentzen duen debaldeko lan erreproduktiboa ez dugu topatzen. Zapaltzaile bezala ditugun pribilegio eta kontraesanez aritu nahi dugu ere aurrera egiten jarraitzeko; eta identitatea elkar-ekintzan eraikitzen den prozesu konplexua eta multi-dimentsionala dela ulertzen dugu. Beraz, errezeta erredukzionistarik ez dugu behar. Herritar guztientzako askatzailea den proiektua da behar duguna, bizitza duinaren mugak aintzat hartuko dituen. Eta bizitza erdigunean jartzeko burujabetza pertsonala, materiala eta politikoa elikatuko duen Mugimendua izaten jarraitu behar dugu.

Jauzi bat emateko unean gaude. Kontzientziazio maila eta masa kritikoa handia dago, salda badago! Politika guztietan eta gure egunerokoa eragiteko boterea eraiki behar dugu. Marra gorriak ipintzeko, beste eredu batzuk sortzeko: epaitegietan, politika publikoetan, aurrekontuetan, familietan... Borroka diskurtsiboan asko ari gara ereiten, narratiba eta bizitza posible berriak urratu ditugu. Bada, eremu materialean eragiteko unea da, guztion bizi baldintzak aldatzeko proposamenak egikaritzeko unea da.

Horretarako, bide partekatu bat proposatzen dugu, beraz, elkarrekin erabaki beharko ditugu datozen urteetarako zeregin nagusiak. Baina Bilgune Feministan, behintzat, **bi lan lerro estrategiko** ikusten ditugu Mugimendu Feministan lantzeko:

1.) Ongi bizitzeko plana: Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa izan dadin, zaintzak berrantolatzeko proposamen zehatzagoak-materialagoak behar ditugu. Arlo honetan konkrezio maila altuagoa eskatzen dabil gure oinarri feministak.

M8ko greba feministaren txostenean badaukagu une honetan Mugimendu Feministan dagoen lurzoru-adostasun zabalena, bai oinarri ideologikoei lotuta, bai aldarrikapenei lotuta, esaterako: *Etxeko enplegua aberastasuna eta ongizate soziala sortzen duen jarduera ekonomiko gisa aitortzea, barne etxeko langilearen figura desagertzea, zaintzarako eta menpekotasunari arreta emateko berezko sistema publikoa: zerbitzu sozial, publiko, doako eta unibertsalak!...* Puntu hauetatik datorren urteetarako agenda planifikatu dezakegu. Zehaztu beharko genuke nondik ekin, zeintzuk dira gure lehentasunak eta zelako batera jotzeak planteatu.

2.) Biolentziarik gabeko bizitzak eta justizia feminista: Patriarkatuaren bakea (eguneroko erasoak, bazterkeria eta biolentzia matxista, alegia) ez da gure bakea! Biolentzia sexualaren inguruko sentsibilizaioa asko zabaldu da. Honen aurkako erantzun irmoak eman ditugu, emakume asko sentitu baikara gorputz bortxagarri eta feminismoaren altzora hurbildu gara autodefentsa eta ahalduntze grinaz. Baina biolentzia sexuala, makinariaren zati bat besterik ez da: Hor dago G7ak irudikatu duen basakeria ekonomiko eta ekologikoa, arrazakeria, pobrezia, estatuen errepresio politikoa, espetxea, eraso lesbofobo edo transfoboak, bankuek agindutako etxe kaleratzeak... Feminismoak honetaz ere hitz egiten du, eta saiatu behar gara energia guztiak biolentzia sexualaren aurkako borrokan ez xahutzen.

Esan dezakegu, biolentzia matxistaren aurkako borrokan orain arteko tresnak tope batera ailegatu direla: gaueko manifestazioak, protokoloak, mobilizazio masiboak... Aurrera begira, elkar gurutzatzen diren biolentziei aurre egiteko palankak identifikatu eta justizia feministaren oinarriak adostea ezinbestekoa da. Horien artean: biolentzia matxistaren alorrean instituzioen iruzurrak seinatu eta neurri errealak hartzen ez dituztenei kostuak eragiteko gaitasuna behar dugu, "garbiketa morerik ez!"; xenofobiaren eta beldurraren diskurtsioa deseraiki behar dugu;

komunitatearen papera indartu behar dugu, biolentzia pairatzen duten emakumeak babestu eta zigorreen oinarritutako prozesuak gauzatu ahal izateko. Bukatzeko, Euskal Herrian abian den bake prozesua, feministontzat aukera gisa ulertzen dugu. Hala izan dadin, bakea eta elkarbizitza feminismotik ezaugarritu behar dugu eta gatazken konponbidean emakumeen parte hartzea bultzatu behar dugu.

NOREKIN EGINGO DUGU BIDEA? (Subjektua)

Eraldaketarako karril-estrategia orokorra egotea inportantea da, borroka ezberdinak josteko. Baina karril hori ezin da eraiki, borroka mailakatur, subjektuak ezkutatur edota agendak inposatur. Mundu berri bat eraiki nahi badugu, elkarren arteko beharra dugu, inork ez duelako arazoari erantzuteko erantzun totala.

Sistemak gure arteko diferentziak erabiltzen ditu gure loturak zatikatzeko, isolatzeko, desaktibatuzko. Jendartea feminismotik iraultzeko, ordea, **diferentziak baliatu beharko genituzke eraldaketarako errezeta konplexuagoak eta mamitsuagoak sortzeko**, dominazioaren mekanismoak hobeto ulertzeko, eta okerrenen daudenen bizi baldintzen aldeko borroka lehenesteko. Bazterrean eta zapalduen daudenek erakusten baitigute mendebaldeko modernitatearen proiektu kapitalista-kolonialista-arrazista-heteropatriarkal-globalizatuaren bortizkeriaren neurria.

Mugimendu Feministaren praktikatik bi irakaspen berreskuratu nahi ditugu **subjektu poliedrikoa osatzen** jarraitzeko:

1.) Aniztasunaren aitortza eta artikulazioa: bai Mugimendu Feministaren baitan, baina baita herri moduan ere. Aniztasuna ez da helburu bat, gure errealitatea da. Gure herria anitza da eta beraz aniztasuna gaur eguneko gizarteak ezartzen digun erronka da. Baina aukera bat ere bada: diferentziek interpelatzen gaituzte, gure zapalkuntza edota pribilegio posizioaz ohartarazten digute eta horrek mugiarazten gaitu. Beraz, aniztasuna ez da ezberdinen arteko gehiketa armoniatu bat. Ez, ordea, aniztasuna gatazkatsua da eta ezin ditugu, esaterako, klase, jatorri, hizkuntza, edo sexualitatearen arabera berezikeriak aniztasunez mozorrotu. Bereizkeriekin amaitzeko egiturazko aldaketak bultzatzen ditugun bitartean, mugimenduaren barne mailako aniztasuna kudeatzeko baliabideak eta estrategiak behar ditugu.

Aliantzen alde lan egiteak, subjektibidade ezberdinak aitortu eta nortasunetik propiotik harago joatea dakar, orube komuna goldatuko badugu bederen. Aniztasunari dagokion tokia egiteko, ezin dugu bestea areriotzat jo eta “zapalkuntzometroa” edo biktimismoa ekiditea garrantzitsua da. Bestetik, denbora eta guneak arreta handiz zaindu behar ditugu. Bat bakarra eskaini beharrean, era, une eta espazio asko sortu behar ditugu, baita informalak ere. Ezberdinen arteko elkarlanak, normaltzat hartzen dugun funtzionamenduaren erosotasunetik atera eta baliabide

berriak bilatzera behartzen gaitu: bestearen ikuspegia ulertzeko, bestearen denborak eta lehentasunak errespetatzeko... Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak antolatzeko prozesu emankorra egin dugu aspektu honetan. Beraz, aniztasuna, konpondu beharreko zailtasuna izatetik, indargune edo aukera moduan ulertzea funtsezkoa da, honek ekarri ahal dituen onurak azpimarratuz.

2.) Antolakuntza kolektiboa: Hamarkadetako antolakuntza feministak ekarri gaitu honaino: talde feministak, plataformak, autodefentsa sareak, txoko autogestionatuak, koordinadorak, asanbladak, mintegiak... Mugimenduan gaude, Euskal Herriko Mugimendu Feminista gara.

Azken urteetan indar erakustaldi handiak burutu ditugu une zehatzetan, baina eguneroko giharra ez da neurri berean sumatu. Feminismoan parte-hartzeko joerak aldatzen ari dira: eskualdeka une puntualetan elkartzen diren asanbladetan egotea, mobilizazio masiboetara joatea, sare sozialen bitartez inprobisatutako ekimenak antolatzea... Horrek aukera berriak eskaintzen dizkigu, zalantzarik gabe. Baina aukera gure alde baliatzeko, hiru erronka ditugu:

Baga: **Dauden talde feministak indartzea, eta talde berriak sortzea.** Jardunaldietan egon diren (eta egon ez diren) feminista guztiei kolektiboetan antolatzeko gonbidapena egin nahi diegu. Talde feministek oinarri ideologikoak, epe luzerako proiektzioa, ikuspegi estrategikoa eta errealitatea aztertzeke metodoa eskaintzen dute. Bakoitzaren aldaketa pertsonalak garrantzitsuak izan arren, kolektiboek josten dute egunerokoan aldaketa sozial txiki-handiak bultzatzeko ehuna. Egiturazkoa ez bada, ez baita denontzako aldaketa izanen. Halaber, militantzia kolektiboak irizpide komun batzuk ahalbidetzen ditu, esaterako, erasoei erantzun bateratuak emateko. Modu honetan, ekimen publikoak egiterakoan gure terminoak markatu eta komunikabideetako fenomeno hain menpeko ez izateko aukerak biderkatzen dira.

San Ferminetako adibidea: San Ferminetako talde-bortxaketaren kasuaren ostean, sare eta komunikabideek elikatuta, emakumeak San Ferminetara ez joateko deialdia masiboki zabaltzen hasi zen. Iruñeako kolektibo feministek gure maniobratzeko tartea oso estutua sentitu genuen egoera horretan. Baina urteetan markatu ditugun irizpideei esker, erantzun azkar bat emateko gai izan ginen, plazartuz: gure apustua Iruñeako kaleak emakumez betetzea dela, kaleak, plazak, eszenatokiak, gauak... gureak direlako! Hori urteetako antolakuntzak eta kolektibitasunak eman diezaguke soilik.

Biga: **Eremu askotan ekiten ari diren feministak kolektibizatuz edo saretuz, atomizazioa gainditzea.** Argi dago feminismoa ez dagoela soilik talde feministetan eta ez dela soilik Mugimendu Feministarena. Kazetaritzan, instituzioetan, herri mugimenduko talde mixtoetan, kultur arloan, hezkuntzan, sindikatuetan, alderdietan, zerbitzu publikoetan, industrian, zaintza lan feminizatuetan ematen ari diren borroketan... Han eta hemen feministok oso aktibo gaude.

Hausturak eragin ditugu, akademian, hainbat alderdietan, hainbat komunikabideetan, baina anaidia berrosatu eta berrindartuko datozen urteetako ofentsiban. Oso gertu eta prest harrapatu behar gaitu.

Aurrerago aipatuko dugun moduan, azken urteetan *Eraginguneko feminista* bat martxan jartzeko urratsak eman ditugu, eremu ezberdinetako feministak elkartu eta intziditzeko estrategiak pizteko. Proiektu hau loratu ez den arren, haren beharra ez da zaharkitu eta esperientzia honetako ikaspenak atera beharko ditugu.

Higa: **Masa borroka artikulatzeko euskal agenda feminista propioa garatzea.** Azken urteetako mobilizazio masiboek, feminismora hurbildu diren milaka emakume herritarrekin loturak egitea ahalbidetu digute. Haietako askok legitimitatea eman diote Mugimendu Feministari euren behar eta ezinegonak borrokatzeko. Askotan, baina, estatutik datorren agenda bir-zentralizatzailearen eragina nabaritu dugu, eta bertatik eratorritako olatuak surfeatu ditugu, bikain surfeatu ere! Esate baterako, geroz eta ugariagoak dira, Espainia mailan mugitzen diren hainbat deialdi, irailaren 20ko *Emergencia feminista*-ren antzekoak, kolektiboki adostu ez ditugunak eta agenda lokala kontuan ez dutenak.

Aurrerantzean, indar akumulazioari eutsi eta gehiengo berriak eratzeko Euskal Herriko agendari erantzuten dioten inflexio puntuak asmatu behar ditugu, gure errealitateari egokituak. Adibidez, 2016an jaietako eraso sexista eta gaueko autodefentsa manifestazioekin salda berotu ostean, Gasteizeko Feministok Prest ekimena izan zena. Gure ustez, epe motzean bi gairekin, behintzat, astindu beharko genituzke gure herriko kaleak:

Batetik, **zaintzaren gatazkan sakontzen jarraitzeko eta etxeko langileen egoera salatuzko.** Gure ustez 2020ean ez dugu greba feministarik egin behar. Besteak beste, greba tresna bat delako eta guk erabaki behar dugulako noiz eta zertarako erabili, horren instituzionalizaziorik edo folklorizaziorik gabe; bi urteetako grebek desgaste handia eragin dutelako eta nekatuta gaudelako; eta gainera, martxoaren 8a igandea delako. Baina, erabaki behar dugu nola berrezaugarritu datorren martxoaren 8a.

Bestetik, **migrazio eta errefuxiatuen krisialdiak, gure mugetan, gure begien aurrean gertatzen ari den genozidioak, gure jendartearen sakoneko arrazakeriak, erantzun feminista indartsua eskatzen dutela** uste dugu. Migrazioak eragiten dituzten transnazionalak, erreprezio politikoak, pobrezia eta gerrek, erantzun irmoa merezi dute. 2020an hasiko den Mundu Martxaren V. nazioarteko ekintzan eman genezake erantzun hori?

NOLA EGINGO DUGU? (Prozesua)

Helburua Mugimendu Feministaren intzidentzia gaitasuna, boterea, handitzea da, bai instituzioei begira baina baita hortik kanpoko jendartearen luze zabalean ere. Argi dugu bide

hau kolektiboan egin beharrekoa dela eta kolektibotasunak prozesuan arreta jartzea eskatzen du: denboretan, koordinazioan, metodologietan, baliabideetan, aniztasunaren kudeaketan e.a. **Norabide komun batekin jardun behar dugu**, ibilian, elkar ekintza eta kontraesanetatik **eraiki, berreraiki eta eraldatzen doan prozesuan**, aldez aurretik diseinatutako errezeta borobil eta itxirik ez dagoelako.

Ezinbestekoa da **kultura politiko berria sortzea**, hori baita eraldaketaren lehenengo entsegua. Zentzu horretan hiru klabe azpimarratu nahi ditugu:

a) Egunerokotasunaren politizazioa: Tradizionalki eremu publiko-politikoan kokatutakoaz gaindi, harreman ereduak, zaintzak, gorputzak eta sexualitatea, denboren banaketa, hizkuntza, kontsumo ohiturak... oso politikoak dira. Lerro honen baitan, urrats esanguratsua eman genuen greba feministan zaintza edo kontsumo greba eginez, baina asko dugu sakontzeko etorkizunean.

b) Des-zentratu gaitzen: Maria Raimondezek proposatzen du “**posizio ez hegemonikoen ulermena**”. Hau da, posizio ez hegemoniko bat okupatzea, potentziala da beste diskriminazio egoerak sentitzeko eta hautemateko. Baina horretarako, gure zapalkuntzatik atera behar gara, biktima posiziotik, konturatu ahal izateko pribilegio posizio batean nagoela ere. Deszentratze ariketa hau mingarria da, ezinegona dakar, deserosotasuna. Zapalkuntzak kontraesanez beteta daude, eta heldu behar diegu kontraesan horiei benetako eraldaketa nahi baldin badugu. Kontraesanean murgiltzen garenean, bestearen zapalkuntzaren esperientzia errekonozitzeko gaitasuna daukagu.

Adibide interesgarria izan daiteke euskararena. Herri honetan emakume askok sentitzen gara zapalduta gure hizkuntzak bizi duen gutxiespen eta bazterketarengatik. Askotan hizkuntza banatzen gaituen zerbaiten moduan bizi izan dugu: “gazteleraz egiten duten hiztunak badaude, ezingo dugu euskara bermatu eta ez gaude uko egiteko prest”. Baina euskal hiztun moduan dugun posizio ez-hegemonikotik, beste posizio gutxitu batzuekin konektatzen badugu eta alderantziz, euskaldunak eta bertakoak izateagatik ditugun bestelako onurak identifikatuko ditugu (pasaporte europearra edo sostengu sarea izatea, kasu), gure posizio konplexuaren jabe, bestearekin loturak egiteko kokaleku egokiagoan jarriko gara. Horrela lortzen goaz, pixkanaka, euskara Mugimendu Feministaren erdigunean kokatzea eta eremu hau politizatzea. Beti ere, gure arteko aniztasuna zaindu, erritmo ezberdinak barnebidu eta euskara harrera hizkuntza bilakatzen dugularik.

c) Lidergoen txanda pasa egitea: Nabarmena da azken urteetan Mugimendu feministan herrietan motore lanak hartu dituzten kideak ez direla gehiegi aldatu. Borroka feministak lidergoak eskatzen ditu, lidergo kolektiboak. Prozesuak diseinatu,

etsi, dinamizatzen dituzten elkarguneak, alegia. Baina zerbaitetan ez dugu asmatzen, kide berriak ez dutenean lidergo hauen parte izateko nahia edo aukera sentitzen. Horrela, dauden kideak erretzen dira eta askotan mugimendua utzi eta urrutira doaz arnas bila. Bestetik, boterea banatu eta sakabanatu beharrean, esku gutxitan pilatzen da. Datozen urteetan, beraz, talde motore horiek berrosatu, zabaldu eta txandakatu behar ditugu. Horrekin batera, talde motore edo koordinazio guneen funtzioak adostu eta mugatu beharko ditugu. Horren bitartez, eta gure elkarguneen funtzionamendurako akordioak gardenduz, errazagoa izango baita beste kide batzuk ardurak hartzeko konfiantza sentitzea.

Ez gara ordea bide hauetan gaurtik hasten eta, zentzu horretan, garrantzitsua deritzogu orain arte elkarren artean bildu eta elkarrekin borrokatzeko ditugun espazioak errebisatzea. Hain zuzen ere, guretzako garrantzitsua da:

•**Eztabaida nazionalak indartzea**: 10 urterik behin elkartzea gutxiegi da, ezta? EHko Jardunaldi Feministen gisako espazioak behar ditugu maiztasun handiagoarekin. Argi geratu da eztabaida kolektiboaren beharra, nola aberasten gaituen eta elkarrekin egiten ditugun prozesuek ematen dizkiguten lorpenak, horregatik topaleku gehiago behar ditugu. Beharbada ardatz bakar batean sakontzeko antolatu daitezke horrelako espazioak, edota eztabaidarako formatu berriak asmatu.

•**Koordinazio eraginkorra osatzea**: Masak, olatuak eta sareak aktibatzeke egiturak eta baliabideak behar ditugu. Gune bakarra ez dugu izango, baina koordinazio eta artikulaziorako espazioak ordenatu eta indartu beharrean gaude.

-**EH Emakume Mundu Martxaren** topalekua eredu bat da horretan: dinamizazio lantalde iraunkorra dauka eta sare zabala; hainbat lan ildo ezarrita ditu, baita eraikitetarako protokoloa ere; nazioarteko aliantzak ehuntzeko tresna da... Horrek guztiak epe luzerako prozesuak eustea ahalbidetu digu Mundu Martxaren baitan. Aurrera begira, potentziatu beharreko plataforma dela deritzogu, batez ere, anitzen arteko topaleku nagusia izan delako Euskal Herrian. Bilbon dauka gorputz propioa, baina beste herrialdeetara hedatzeko erronka dugu. Gainera, azken urteetan, Mugimenduarentzat baliabideak eskuratzeko aukera ematen digun elkarte bakarra da (dirulaguntzak, liberazioak, izen juridikoa eta zergak eguneratuta duen elkarte). Hori guztia oso baliagarria izan da, kasu, greba edota jardunaldiak indartu ahal izateko.

-**Baliabideak**... ai, baliabideak! Harreman gatazkatsua daukagu Mugimendu Feministan diruarekin edota egitura finkoekin. Baina, zoritxarrez, sistema honetan gauza gehienek (jardunaldiak egiteko azpiegiturak, isunei aurre egiteko abokatuak, itzulpengintza zerbitzuak, kartelak, webguneak...) prezioa dute. Zoritxarrez, iraultza egitea garestia da.

Nola konpontzen ari gara auzi hau Mugimendu Feministan? Diru publikoa eskuratzeko ditugun aukera eta korapiloez, autogestiorako daukagun gaitasun eta mugez, naturaltasunez hitz egin beharko genuke.

-Mugimendu Feministaren agenda adosteko erreferentziazko espazio bat behar dugu, talde feministen elkargune izango dena: egoeraren balorazioa egiteko, ikuspegi estrategikoa mantentzeko, ikasturtea irudikatzeko eta helburuak jartzeko, egon daitezkeen proposamen ezberdinen kontrastea egiteko, agenda ordenatzeko.... Hainbat erabaki elkarrekin hartzea erraztuko lukeen elkargunea litzateke, iparra elkarrekin marrazteko. Izan zitekeen, adibidez, Jardunaldi Feministak antolatzeke sortu den koordinazio espazioaren antzeko zerbait, ikasturtean behin edo bitan elkartzea?

-Asanblada irekiak: Geroz eta gehiago erabiltzen ari garen tresna dugu, maila lokal, herrialdeka edo nazionalean, bereziki ekimen handiak antolatzeke erabilitakoa. Erabaki politikoak hartzeke mugak dituen arren, espazio ireki hauek ezinbestekoak dira prozesu parte-hartzaileak bultzatzeko, inplikazio maila ezberdinak metatzeko eta sareak ehuntzeko. Lanak eta ardurak banatzeko erabilgarri izan beharko litzateke ere, nahiz eta horretan zailtasun handiagoak izan ditugun praktikan. Edozein modutan, argitu beharko genuke, eta hala transmititu, zein elkargune diren erabaki politiko estrategikoak hartzeke eta zeintzuk diren proposamenak jasotzeko, kontrastatzeko, informatzeko edota lanak banatzeko. Gehienetan, espazio guztiak ez dute guztirako balio eta funtzioak ez baditugu banatzen, eraginkorrak izateari uzten diote.

-Eragingune feminista: Arestian aipatu dugun moduan, urteetako prozesua izan da, eremu ezberdinetako feministak saretu dituen. Horrela zioen aurkezpen testuak: *"Lidergo feminista indartsu bat osatu behar dugu (...) gure herrian trantsizio feminista egikaritzeko nahiaz gabiltza. Bide horretan, epe motzean gune feminista iraunkor bat martxan jartzea beharrezkoa dela deritzogu: elkarrekin norabideak zehaztu, erabakiak hartu eta intzidentzia politikoa irabazteko"*. Eremuz eremu feminismotik eragitea, hegemonia lortzea eta marra gorriak ezartzea izan du helburu. Azken urtean, eragingunea pausan gelditu da, gaitasun edota baliabide faltagatik, indar gehiagoren inplikazio faltagatik... Aztertu beharko litzateke. Baina Euskal Herrian egiten diren politikei jarraipena egiteke eta horietan intziditzeko estrategiak, metodoak eta espazioak behar ditugu oraindik ere. Bere horretan dirau erronka, beraz, konspirazioa ez dadila eten.

-Saregintzari eutsi: Sareak ez dira berez josten. Sareak modu geografikoan edota ardatz ezberdinen arabera sortzen ditugu. Nahiz eta, askotan, oso modu espontaneoan ehuntzen diren, inurri lan nekaezina dute atzean. Izan birtualak (email zerrendak, sare sozialak...) edo fisikoak

(elkar ezagutza, konplizitateak, proiektu komunak...), sareak malguak eta porotsuak izan behar dira. Aldi berean, ordenatuta, osasuntsu eta eguneratuta mantentzeko tresnak behar ditugu, saregile finak: kafeak hartzen dituztenak, emailean kontaktu berriak sartzen dituztenak, kartelak eta kamisetak herriz herri eramaten dituztenak, asanbladak prestatzen dituztenak, wassap taldeak sortzen dituztenak eta telefonoz deitzen dutenak, twiterrari kea eragiten diotenak, tabernetako solasaldietako saltserak, koadriletako aztoratzaileak... Lan ikusezina izaten da maiz, baina saregilerik gabe, iraultzarik ez. Gure aitortza guztia, urteetan josi eta josi ibili zareten guztiei! Guztion lana da hori, eutsi dezagun kolektiboki eta modu kontzientean.

Euskal Herri feminista batekin amesten dugunok, ez dugu misio makala. Baina erronka besteko aukera ditugu. Azken urteetan metatutako indarra eraginkortzeko tresnak behar ditugu: estrategia eta agenda partekatuak, lidergotza kolektiboak, gure aldarrikapenak materializatzeko proposamen zehatzak, subjektu anizkoitza..., eta batez ere, antolakuntza, zaintza eta borroka! Salda badago!!!

LAS ENTRAÑAS DEL MOVIMIENTO FEMINISTA:

¡Construyamos poder transformador!

Ponencia de Bilgune Feminista

¿QUÉ QUEREMOS CONSEGUIR? (Proyecto)

Ante la falacia del feminismo liberal, tenemos que tejer un proyecto radical. Instituciones, empresas o la cultura *mainstream* quieren hacer del feminismo algo *amable*, y dejar fuera todo lo que ahí no cabe. En la última canción de Merche queda claro: “*Yo soy feminista total, porque siempre he defendido la igualdad. No me gustan los radicalismos. Libertad es ser uno mismo. Todas somos hermanas, españolas o mexicanas. Y yo haré lo que me dé la gana*”. Ese es el relato del sistema: la fiesta de la igualdad y la diversidad, centrada en el YO, pero sin ningún sentido colectivo, sin movimiento político radical, sin lucha colectiva y, mientras sea cómodo, no hay problema. Es la forma que va a tomar, al parecer, el nuevo pacto patriarcal en los años que vienen.

Hemos conseguido que el feminismo no sea algo prohibido, pero ahora tenemos que enfrentar el orden individualista y la ofensiva machista que se está reorganizando: las resistencias (activas o pasivas) de los hombres se han reforzado, la ofensiva discursiva del feminismo “racional-liberal” se está extendiendo, *inditex* nos ha convertido en negocio... No queremos ningún feminismo que sea para la foto, estamos en busca de un planteamiento que cambie radicalmente nuestras vidas, a favor del %99 de las personas. Por ello, el género no engloba todas las razones de nuestras opresiones; tenemos que tener en cuenta las discriminaciones según estatus de migración, clase, raza, nación y/o sexualidad, tanto para analizar la realidad como para proponer alternativas.

Por otro lado, la receta que viene desde algunos sectores de izquierdas, esencialista, monolítica, de un único sujeto y, a menudo, anti-feminista, no nos vale: “la clase trabajadora (entendido de forma estricta) es el único sujeto revolucionario, y el resto de movimientos, al parecer, venimos a dividirlo y hacerle el trabajo al sistema”. Pero en ese marco tan restringido no cabemos las periféricas, mujeres, bolleras, trans... En esa perspectiva de clase no encontramos el trabajo reproductivo gratuito que sostiene la vida. Para seguir avanzando, queremos hablar de los privilegios y contradicciones que tenemos como opresoras; entendemos la identidad como un proceso complejo y multidimensional que construimos mediante la interacción. Por tanto, no necesitamos recetas reduccionistas. Necesitamos un proyecto que sea liberador para toda la gente y, especialmente, para todas las mujeres, y que vaya a tener en cuenta los límites de la vida

digna. Y para poner la vida en el centro, tenemos que seguir siendo un movimiento diverso que alimente la soberanía personal, material y política.

Estamos a punto de dar el salto. Hay mucho nivel de concienciación y de masa crítica feminista, ¡hay caldo! Tenemos que construir poder real para incidir en todas las políticas y en lo cotidiano. Para establecer líneas rojas, para crear otros modelos: en los juzgados, en las políticas públicas, en los presupuestos, en las familias... En la lucha discursiva estamos sembrando mucho, hemos creado nuevas narrativas y vidas posibles. Y así, es hora de incidir en lo material, es momento de materializar las propuestas que transformen las condiciones vitales de todas.

Para ello, proponemos un camino compartido, en el que tendremos que decidir entre todas las tareas principales de los próximos años. Pero en Bilgune Feminista, vemos al menos **dos líneas de trabajo estratégicas** para trabajar en el Movimiento Feminista:

1.) Plan para el buen vivir: Para que la responsabilidad y el trabajo de sostener la vida sea colectivo, necesitamos propuestas más específicas-materiales para reorganizar los cuidados. En ese ámbito, nuestra base feminista pide un mayor nivel de concreción.

El dossier de la huelga feminista del 8M es, hoy por hoy, el más amplio del territorio común o consenso que existen en el Movimiento Feminista de Euskal Herria, tanto en relación a las bases ideológicas como a las reivindicaciones. Por ejemplo, el texto dice: *Reconocer el trabajo doméstico como actividad económica que genera riqueza y bienestar social, borrar la figura de trabajadora doméstica interna, un sistema público propio de cuidados y para la atención de dependencias: servicios sociales, públicos, gratuitos e universales...!* Partiendo de esa base, podemos planificar la agenda de los próximos años. Tendríamos que especificar nuestras prioridades, cómo lo haremos y qué tipo de movilizaciones plantearemos, pero creemos que disponemos de una base común.

2.) Vidas sin violencia y justicia feminista: La paz patriarcal (agresiones cotidianas, exclusión y violencia machista) ¡no es nuestra paz! La sensibilidad hacia la violencia sexual se ha extendido mucho. Hemos respondido con contundencia ante ella, porque somos muchas las mujeres que nos hemos sentido violables y nos hemos acercado al feminismo con sed de autodefensa y empoderamiento. Pero la violencia sexual no es más que una parte del sistema patriarcal-capitalista: ahí tenemos la salvajada económica y ecológica que ha representado el G7, el racismo, la pobreza, la represión política de los estados, la prisión, las agresiones lesbóforas o transfobas, los desahucios ordenados por bancos... El feminismo también analiza todo ello, y tenemos que intentar que no se nos vaya toda la energía en la lucha contra la violencia sexual.

Podríamos decir que, en la lucha contra la violencia sexual, las herramientas que hasta ahora han sido válidas han llegado a su tope, ya no son suficientes: manifestaciones nocturnas, protocolos,

movilizaciones masivas...Además, últimamente nos encontramos en la dinámica asfixiante de responder agresiones, y sentimos la necesidad de ordenar mejor esas respuestas (consensuar cuándo, cómo y por qué). De cara al futuro, es imprescindible identificar las palancas para enfrentar las violencias que se entrecruzan y acordar las bases de la justicia feminista. Por ejemplo: en el ámbito de la violencia machista señalar el fraude institucional.

Por último, entendemos el nuevo contexto que vivimos en Euskal Herria como una oportunidad para las feministas. Para que sea así, tenemos que definir la paz y la convivencia desde el feminismo, y estamos fomentando la participación de las mujeres en la resolución de los conflictos.

¿CON QUIÉN ANDAREMOS EL CAMINO? (Sujeto)

Es importante que exista un carril general para la transformación, para tejer distintas luchas. Pero ese carril no se puede construir escalonando luchas, invisibilizando sujetos o imponiendo agendas. Si queremos construir un mundo nuevo, nos necesitamos, porque nadie tiene la respuesta total para el problema.

El sistema utiliza nuestras diferencias para dividir nuestras ataduras, aislarnos, desactivarnos. Pero para transformar la sociedad desde el feminismo, **tenemos que convertir las diferencias en oportunidades**. Y tenemos que aprovecharlas para generar recetas transformadoras más complejas y ricas, para, precisamente, entender mejor los mecanismos de dominación y priorizar las condiciones de vida de aquellas que están peor. De hecho, son las personas periféricas y oprimidas las que nos enseñan la medida del proyecto de la modernidad occidental capitalista-colonialista-racista-heteropatriarcal-globalizado y la fuerza de su violencia.

Desde la práctica del Movimiento Feminista queremos recuperar dos aprendizajes para continuar **completando el sujeto poliédrico**:

1.) Reconocimiento y articulación de la diversidad: tanto en el Movimiento Feminista, como en los Movimientos Populares. La diversidad no es un objetivo, es la realidad. Nuestro pueblo es diverso, por lo que la diversidad es un reto que nos impone la sociedad actual Pero es, también, una oportunidad: las diferencias nos interpelan, nos advierte de nuestras opresiones o posiciones de privilegio y eso nos moviliza. Por tanto, la diversidad no es una suma armoniosa de gente distinta. Pero la diversidad es conflictiva y no podemos disfrazar de diversidad, por ejemplo, las discriminaciones por razón de clase, origen, idioma o sexualidad. Mientras impulsamos cambios estructurales para acabar con la discriminación, necesitamos recursos y estrategias para gestionar la diversidad interna del movimiento.

Trabajar a favor de las alianzas conlleva reconocer distintas subjetividades e ir más allá de la propia identidad; al menos, si queremos arar una tierra común. Para darle a la diversidad el

lugar que le corresponde, no podemos tomar al otro por adversario, y es importante evitar el “opresiónometro” y el victimismo. Además, tenemos que repensar con mucha atención las formas, tiempos y espacios de participación. En lugar de ofrecer un único espacio, tenemos que diversificarlos, también en el plano informal.

El trabajo conjunto con diferentes nos saca de la comodidad del funcionamiento que tomamos como normal, y nos obliga a buscar nuevos recursos: para entender la perspectiva de las otras, para respetar sus tiempos y prioridades... Para organizar las V. Jornadas Feministas de Euskal Herria hemos realizado un proceso fructífero en ese sentido. Siguiendo ese camino, es fundamental entender la diversidad no como un obstáculo a resolver, sino como punto fuerte u oportunidad, enfatizando los beneficios que conlleva.

2.) Organización colectiva: Son décadas de organización feminista las que nos han traído hasta aquí: grupos feministas, plataformas, redes de autodefensa, espacios autogestionados, coordinadoras, asambleas, seminarios... Estamos en movimiento, somos el Movimiento Feminista de Euskal Herria.

En los últimos años hemos realizado demostraciones de fuerza en momentos concretos, pero el músculo diario no ha crecido en la misma proporción. Las tendencias para participar en el feminismo están cambiando: participar en asambleas que se reúnen puntualmente por comarcas, acudir a movilizaciones masivas, organizar iniciativas improvisadas por las redes sociales... Ello, sin duda, nos ofrece nuevas oportunidades. Pero para usarlas a nuestro favor, tenemos tres retos:

Uno: Reforzar los grupos feministas que ya existen, y crear grupos nuevos. Queremos invitar a todas las feministas que han estado (o no) en las jornadas a que se organicen en colectivos. Los grupos feministas ofrecen base ideológica, proyección a largo plazo, visión estratégica y metodología para observar la realidad. Aunque los cambios personales sean importantes, son los colectivos los que tejen día a día el sustento de los cambios sociales grandes y pequeños. Ya que, si no es estructural, no es un cambio para todas. De la misma forma, la militancia colectiva facilita ciertos criterios comunes para, por ejemplo, responder conjuntamente ante las agresiones. De esta forma, al realizar iniciativas públicas, se multiplican las oportunidades de marcar nuestros términos y no depender de los fenómenos de los medios.

Ejemplo de San Fermín: Después del caso de la violación conjunta de San Fermín, empezaron a difundir el llamamiento para que las mujeres no acudieran a San Fermín, alimentado por las redes y los medios. Los colectivos feministas de Iruñea sentimos poco margen de maniobra en esa situación. Pero gracias a los criterios marcados durante años, fuimos capaces de dar una respuesta rápida, tomando la plaza: aclaramos que nuestra apuesta es llenar de mujeres las

calles, los escenarios, las noches de Iruñea... ¡porque son nuestras! Este tipo de respuestas colectivas sólo nos las pueden dar años de organización y colectividad.

Dos: **Organizar o crear red entre feministas que están actuando en muchos ámbitos.** El feminismo no sólo está en los grupos feministas, y no es sólo del Movimiento Feminista. En el periodismo, en las instituciones, en los grupos mixtos del movimiento popular, en la educación, en los sindicatos, en los partidos, en los servicios públicos, en la industria, en las luchas que se están desarrollando en los trabajos de cuidado feminizados... Las feministas estamos muy activas por todas partes. Hemos provocado rupturas, en la academia, en varios partidos o en medio de comunicación, pero la fraternidad se recupera continuamente. Tenemos que estar muy cerca y muy preparadas.

Como explicaremos más adelante, en los últimos años hemos dado pasos para poner en marcha un *Eragingune feminista* (espacio de incidencia feminista), para tejer redes entre mujeres que andamos dispersas en otros ámbitos. Aunque ese proyecto no haya dado sus frutos, sigue siendo necesario, y tendremos que extraer conclusiones de esta experiencia.

Tres: El Movimiento Feminista de Euskal Herria es nuestro sujeto principal, y para ello **tenemos que reforzar la agenda feminista vasca.** La lucha de masas de los últimos años nos ha permitido establecer relación con miles de mujeres que se han acercado al feminismo. Muchas de ellas han concedido al Movimiento feminista legitimidad para luchar por sus necesidades e inquietudes. ¡Pero a menudo hemos notado el efecto de la agenda re-centralizadora del estado, hemos surfeado las olas que nos llegaban desde ahí, y lo hemos hecho fenomenal! Por ejemplo, son cada vez más frecuentes las convocatorias que llegan del Estado, similares a la *Emergencia feminista* del 20 de septiembre, que no han sido acordadas colectivamente y no tienen en cuenta la agenda local.

En adelante, tenemos que priorizar puntos de inflexión que respondan a la agenda de Euskal Herria, adaptados a nuestra realidad, para mantener la acumulación de fuerzas y generar nuevas mayorías. Por ejemplo, después de la agresión de fiestas de 2016 y templar el caldo con las manifestaciones nocturnas de autodefensa, surgió lo que fue Feministok Prest. Creemos que, a corto plazo, tendríamos que agitar las calles de nuestro pueblo con dos temas:

Por un lado, **seguir profundizando en el conflicto de los cuidados y movilizarnos para denunciar la situación de las trabajadoras de hogar.** Este año, en nuestra opinión, no tenemos que convocar la huelga feminista, por distintos motivos: porque la huelga es una herramienta y nosotras tenemos que decidir cuándo y para qué utilizarla, sin institucionalizarla; porque dos años de huelgas han generado mucho desgaste y estamos cansadas; y, por último,

porque este año el 8 de marzo es domingo. En todo caso, tendremos que ver como caracterizamos este nuevo 8 de marzo.

Por otro lado, **la crisis migratoria y de refugiados, en nuestras fronteras, el genocidio que están llevando a cabo ante nuestros ojos, el profundo racismo de nuestras sociedades merece una respuesta feminista.** Las transnacionales que provocan migraciones, la represión política, la pobreza y la guerra merecen respuestas contundentes. ¿Lo podríamos hacer mediante la V. acción internacional de la Marcha Mundial que comienza en 2020?

¿CÓMO LO VAMOS A HACER? (Proceso)

El objetivo es aumentar la capacidad y el poder de incidencia del Movimiento Feminista, tanto de cara a las instituciones como en el conjunto de la sociedad. Tenemos claro que ese proceso de empoderamiento debe ser colectivo, y esto requiere cuidar el proceso a diferentes niveles: tiempos, coordinación, metodologías, recursos, gestión de la diversidad, etc. **Debemos actuar con un rumbo común** y construir el camino desde la acción conjunta y las contradicciones, en **un proceso que constantemente se construye, reconstruye y transforma.** Sin recetas diseñadas previamente.

Es indispensable **crear una nueva cultura política**, pues es éste el primer paso de la transformación. En ese sentido nos gustaría remarcar tres claves:

a) **Politización de lo cotidiano:** Aquello que tradicionalmente no se ha ubicado en la esfera público-política (cuidados, cuerpos y sexualidades, reparto del tiempo, lengua, hábitos de consumo...) tiene carácter político. En esta línea se ha dado un paso importante con la huelga feminista, llevando a cabo una huelga de consumo y cuidados, pero aún hay mucho que profundizar de cara al futuro.

b) **Des-centrémonos:** Maria Raimondez propone **“la comprensión de las posiciones no hegemónicas”**. Es decir, ocupar una posición no hegemónica es potencial para sentir y percibir otras situaciones de discriminación. Pero para ello debemos salir de aquello que nos oprime, alejarnos de la posición de víctimas y darnos cuenta de que también estamos en una situación privilegiada. Éste acto de descentramiento es incómodo y doloroso, genera malestar. Pero las opresiones están llenas de contradicciones, y si queremos una transformación real debemos abordarlas. Cuando nos sumergimos en ellas somos capaces de reconocer las opresiones del resto.

El ejemplo del euskera es interesante. Muchas mujeres nos sentimos oprimidas por el desprecio y marginación que sufre nuestra lengua. A menudo vivimos el idioma como algo que nos separa: “si hay castellanoparlantes no podremos asegurar el euskera y no estamos dispuestas a renunciar a ello”. Pero si desde la posición no hegemónica de

hablantes de euskera conectamos con otras posiciones minoritarias, y a su vez identificamos los beneficios que conlleva ser occidentales y vascas (tener pasaporte europeo, redes de apoyo...), seremos capaces de darnos cuenta de lo compleja que es nuestra posición y estaremos en el lugar apropiado para poder conectar con otras posiciones. De este modo, poco a poco vamos colocando el euskara en el centro del Movimiento Feminista y politizando éste espacio. Debemos cuidar siempre nuestra diversidad, dar cabida a los diferentes ritmos y convertir el euskera en lengua de acogida.

c) Rotación de liderazgos: Es evidente que en los últimos años quienes han estado en el motor del Movimiento Feminista no han variado. La lucha feminista requiere liderazgos colectivos. Confluencias en las que se diseñen, dinamicen y sostengan los procesos. En algo fallamos cuando las nuevas compañeras no sienten el deseo o la oportunidad de habitar esa responsabilidad motor. De este modo las compañeras que están en primera línea se queman y se alejan del movimiento en busca de oxígeno. Por otro lado, en vez de repartir el poder, éste se concentra en unas pocas manos. En los próximos años queremos rearmar, expandir y rotar los grupos motores. Del mismo modo, tendremos que volver a acordar y acotar las funciones de los espacios de coordinación. De esa forma, aportando transparencia a los consensos sobre el funcionamiento de nuestros espacios de reunión, será más fácil que otras compañeras sientan la confianza para tomar responsabilidades.

Pero el camino para la creación de una cultura política sana no empieza hoy, y consideramos vital revisar los espacios en los que actualmente nos reunimos y luchamos. Más concretamente, para nosotras es importante:

•**Potenciar los debates nacionales:** Reunirnos una vez cada 10 años es demasiado poco, ¿verdad? Necesitamos espacios como las Jornadas Feministas de EH con mayor frecuencia. Ha quedado clara la importancia de los debates colectivos, de la riqueza y de los logros que nos proporcionan los procesos conjuntos, y por ello queremos buscar más puntos de encuentro. Quizás podamos organizar espacios para profundizar entorno a ejes concretos, o crear nuevos formatos para el debate. De cualquier modo, necesitamos más espacios que sirvan para unificar la diversidad del movimiento.

•**Lograr una coordinación eficiente:** Necesitamos estructuras y recursos para activar, masas, olas y redes. Necesitamos ordenar y reforzar los espacios de coordinación y articulación existentes. Tanto en pueblos como capitales, se necesitan espacios de coordinación permanentes que sirvan para conocernos mutuamente y planificar iniciativas que nos unan. A nivel de Euskal Herria queremos destacar lo siguiente:

-La Marcha Mundial de Mujeres de EH es un punto de encuentro ejemplar: existe un grupo de trabajo permanente para la dinamización y una amplia red; tiene líneas de trabajo establecidas y protocolo ante los asesinatos; es una herramienta para tejer alianzas internacionales... Todo ello posibilita establecer procesos a largo plazo en el marco de Mundu Martxa. Creemos que es una plataforma a reforzar en el futuro, sobre todo porque es el principal punto de encuentro para la diversidad en Euskal Herria. Si bien está asentada en Bilbao, se nos presenta el reto de expandirla al resto de provincias. Además, es la única asociación que nos permite obtener recursos para el movimiento (subvenciones, liberaciones, nombre jurídico, está al corriente de los impuestos...). Todo ello ha sido muy necesario para fortalecer la huelga o las jornadas.

-Recursos.... ¡Ay, los recursos! En el Movimiento Feminista tenemos una relación conflictiva con el dinero y con las estructuras fijas. Pero, desafortunadamente en este sistema la mayoría de cosas tienen precio, y caro, además (infraestructura para llevar a cabo las jornadas, abogadas para hacer frente a las multas, servicio de traducción, carteles, página web...). ¿Cómo estamos resolviendo esta cuestión en el Movimiento Feminista? Deberíamos hablar más sobre las oportunidades y trabas que tenemos a la hora de conseguir dinero público, así como de la necesidad de profundizar en la autogestión.

-Necesitamos un espacio de referencia para acordar la agenda del Movimiento Feminista, un espacio que sea punto de encuentro para los grupos feministas: que sirva para valorar la situación, para mantener la perspectiva estratégica, para imaginar y fijar objetivos de cada curso, para contrastar las diferentes propuestas, para ordenar las agendas... Sería un espacio de encuentro que facilitaría la toma de decisiones. Podría ser algo así como el espacio de coordinación que se ha creado para la organización de las jornadas, un espacio que se reúna una o dos veces durante el curso.

-Asambleas abiertas: Es una herramienta que utilizamos cada vez más tanto a nivel local, provincial o a nivel nacional, sobre todo para la organización de grandes eventos. Aunque presentan limitaciones para la toma de decisiones políticas, estos espacios abiertos son indispensables para promover procesos participativos, aunar diferentes niveles de implicación y tejer redes. Deberían ser útiles para repartir responsabilidades y tareas, aunque en la práctica surgen complicaciones. De todos modos, deberíamos aclarar qué puntos de encuentro son para tomar decisiones políticas estratégicas, y cuáles para recoger propuestas, contrastarlas, informar o repartir tareas. La mayoría de las veces los espacios no sirven para todo y si no repartimos las funciones, dejan de ser eficientes.

-Eragingune feminista (Espacio de incidencia feminista): Como hemos comentado anteriormente, ha sido un proceso que ha conectado a feministas de diferentes ámbitos. Así decía el texto de presentación: *“Es necesario crear un liderazgo feminista (...) estamos ante la necesidad de materializar una transición feminista en nuestro pueblo. Es por ello que vemos necesaria la puesta en marcha de un espacio de incidencia feminista: donde se puedan concretar estrategias, tomar decisiones y acumular incidencia política”*. El objetivo principal ha sido incidir desde el feminismo en diferentes ámbitos, marcando las líneas rojas y construyendo hegemonías. En los últimos años, el *Eragingune* ha estado en pausa, bien por falta de fuerzas, capacidades o implicaciones, habría que analizarlo. Pero necesitamos estrategias, métodos y espacios para hacer un seguimiento a las políticas que se están llevando a cabo en Euskal Herria, y de ese modo poder incidir en ellas. Por lo tanto, que la conspiración no cese, porque el reto sigue en pie.

-Seguir tejiendo redes: Las redes no se tejen por sí solas. Creamos redes a nivel geográfico o en base a distintos ejes. A pesar de que en muchos casos se tejen de forma espontánea, requiere un trabajo incansable. Ya sean virtuales (listas de emails, redes sociales...) o físicas (complicidades, conocernos, construir proyectos comunes...), las redes deben ser “porosas” y flexibles. Pero al mismo necesitamos herramientas para mantenerlas ordenadas, saludables y actualizadas; necesitamos tejedoras: las que se toman un café, las que meten los nuevos contactos en la lista de emails, las que llevan carteles y camisetas de pueblo en pueblo, las que preparan las asambleas, las que crean los grupos de *Whatsapp* y las que llaman por teléfono, las que hacen que el *Twitter* saque humo, las salseras de las conversaciones de los bares, las incendiarias de las cuadrillas... A menudo es un trabajo invisible, pero sin redes ni tejedoras, no hay revolución. ¡Todo nuestro reconocimiento a todas aquellas que habéis estado tejiendo redes durante años! Es tarea de todas seguir llevando a cabo ese trabajo de forma consciente y colectiva.

Quienes soñamos con una Euskal Herria feminista, no tenemos una misión simple. Tenemos delante tantos retos como oportunidades. Necesitamos de herramientas que hagan efectivas las fuerzas tejidas durante los últimos años: estrategias compartidas, liderazgos colectivos, propuestas concretas que materialicen nuestras reivindicaciones, sujetos múltiples..., y sobre todo, organización, cuidados y lucha feminista! Salda badago!!!